

39. BASARRI BERTSOPAPER SARIA (2023) OINARRIAK

1. SARIA

Zarauzko Udalak 39. Basarri Bertsopaper saria antolatu du, euskara eta bertsogintza sustatzeko.

2. BALDINTZAK

Sariketan parte-hartzeko, ondorengo baldintzak beteko dituzte lanek:

- Bertsopaper bakoitzak, gutxienez, zortzi bertso izan behar ditu.
- Gaia librea izango da.
- Bertso sorta bakoitzaren doinua izenburuaren ondoan zehaztuko da.
- Parte hartzaileek gehienez bi lan bidali ditzakete.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izan beharko dira.

3. AURKEZPENA

Lanak posta elektronikoz aurkeztuko dira:

kultura@zarautz.eus helbidera bi pdf artxibo bidali, era honetara:

- 3.1. Bertso sorta:** bertso sortaren izenburua eta parentesi artean egilearen izen goitia. Adibidez: **Udaberria (Pirata beltza).pdf**
- 3.2. Izenemate orria osatuta eta sinatuta:** pdf dokumentuaren izena egilearen izen goitia izango da, adibidez: **Pirata beltza.pdf**

Bertsotik bertsoa bi lerro zuriko tartea utziko da.

4. EPEAK

Lanak aurkezteko epea 2023 ekainaren 21ean amaituko da.

Epaia uztailearen 4an jakinaraziko da.

Sari-ematea uztailean egingo da, Bertso Astean.

5. EPAIMAHAI A

Hiru lagunek osatuko dute epaimahaia. 39. Edizioko epaimahaian izango dira: Andoni Egaña, Nahikari Gabilondo eta Uxue Alkorta edo horien ordezkok.

Zarauzko Udalak idazkari bat izendatuko du, epaileen arteko batzarra deitzeko, erabakia jasotzeko eta irabazleari jakinarazteko.

6. EPAIAK

Zarauzko Udalak 1.800 euro ezarri ditu irabazlearentzat. Gipuzkoako Foru Aldundiak PFEZ zergaz %15 atxikiko du. Beraz, 1.530 euro garbi jasoko ditu irabazleak.

Epaimahaiaren erabakia atzeraezina izango da. Aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez balute, saria eman gabe geratuko da.

7. SARI EMATEA

Saria Bertso Astean egingo den ekitaldian emango da.

8. LANEN JABETZA ETA SARITU GABEKO LANAK

Egilearena da lanaren gaineko jabetza.

Zarauzko Udalak konfidentzialtasun osoz gordeko ditu lan guztiak. Epaia ezagutzera eman ostean, deuseztatu egingo ditu saritu gabeko lanak.

9. LEGE BARRUTIA

Arautegi honetan jasotzen ez den gorabeherarik sortzen bada, sariketara aurkeztzen diren egileek auzi guztiekiko erabakia erakunde antolatzailearen esku utziko dute.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.